

AZPEITIA

XXXV. EUSKAL ANTZERKI TOPAKETAK
2017KO UDAZKENA



AGURRA

Antzerkia, teatroa edo arte eszenikoa. Berdin du nola deitu. Taula gainean, publikoaren aurrean, istorioak kontatzeko ekintza da. Antzinako Grezian sortuta drama, tragedia edo komedia tradizionalaz gain, gaur egun txontxongilo, mimo, pailazo edo musika eta dantzak ere badute lekua, antzerkiaren mundu anitz eta magikoan.

Euskal antzerkigintzaren hasiera, 1634. urte inguruan kokatzen dute. Beraz, historia askoko tradizioa da gurean, kultur disziplina honena. Azpeitiko Euskal Antzerki Topaketek ez dute mendeetako tradizioarik, baina ezta gutxi XXXV. edizioara heltzea. 35 urtez, euskarazko antzerkigintzaren habia izan da Azpeitia, eta izaten segitzeko konpromiso osoa dugu.

Baina antzerki obrak taularatzeak, herriratzeak eta publikoa erakartzeak duen garrantziari eutsita, antzerkigintzaren etorkizuna ere badugu helburu. Horregatik, azken urteotan, antzerki munduan dabilzan herritarrekin, Kultur Mahaiarekin eta Kulturaz kooperatibarekin elkarlanean, antzerkigintzaren inguruko beste hainbat erronkari heldu diogu.

Egoitza programaren bidez, euskal herri osoko antzerkigileek beren obra Azpeitian sortu, landu eta ontzeko aukera ezin hobea dute. Eta, aurten abian jarri nahi dugun mediazioen bidez, antzerkigile horiek herrian ditugun bitartean, ikastetxeetako gaztetxoekin bisitak egitea dugu helburu. Antzerkia herritarrei gerturatzeko. Antzerkigintza ezagutarazteko. Eta garrantzitsuena, antzerkizaleak sortzeko.

AZARDAN. ANTZERKIAN ELKAR IKUSIKO GARA!

Josu Labaka
Kultura Batzordeburua



SORMENA ESZENARA!

Antzezan batek, estreinuko egunera iritsi arte bide luzea egin ohi du. Sormen prozesu gisa ezagutzen dugun bidaia zoragarri horretan zehar ideiak, hitzak, mugimendua, izerdia, xuxurlak, beherakadak, sentimenduak, amorruek, euforiak, gogoetak eta bestelako mila bizipen biltzen ditu, guztiak bat egin eta ikusentzuleekin partekatzean prozesuaren zirkulua itxi arte.

ANTZERKI SORMEN EGONALDIAK

Badira hiruzpalau urte proiektu eszenikoen sormen prozesuetan begirada jartzen hasi ginenetik eta urtez urte jardun hori bultzatu eta zaintzeko ahaleginak egiten aritu gara. Azpeitiko Udalak eta Kulturaz Kultur Kooperatibatik elkarlanean euskal antzerki sortzaileak babestu eta baliabideak jarri nahi izan ditugu etorkizuneko proiektu berrien bidelagun izanez.

2017an zehar honako antzerki sormen egonaldiak burutuko dira Azpeitiko Soreasu Antzokian: Ze Onda Antzerki Taldea, *Heriotza Bikoitza (Doble Malta)* lanarekin. Itzel Antzerkia, *Biziminak* lanarekin. Hika Teatroa, *Txarriboda* lanarekin. Tanttaka Teatroa, *Giltzadun Etxea* lanarekin.

Gainera, sormen esperientziak partekatzeaz gain, prozesu horien bitartez herriko kolektibo desberdinekin hainbat mediazio ekimen eta beste hainbeste emanaldi herriratzea da gure helburua.

ZUBI PROIEKTUA, EUSKAL ANTZERKIAREN SORTZAILE BERRIEI LAGUNTZEN

Aurten, gainera, Zubi proiektuaren lankidetzara sarera batu gara. Hau euskal sortzaile berriei bultzada emateko sortzen den ekimena da, eta bertako kideek hautatua den proiektuari babesa emateko hartzen duten konpromisoa du oinarritzat. Azpeitiko Kulturaz Kultur Kooperatibak, Durangoko San Agustin Kulturgunek, Kultur Leioak, Hameka Karrikako Arteen Fabrikak, Zornotza Aretoak, Baxe Nafarroako Herri Antzokiak, ElorriokoArriola Aretoak, Zumaiako Udalak eta Artedramak sorkuntza berriak bideratzeko helburuarekin, Zubi proiektua tresnatzat harturik laguntza eskaini nahi diogu euskal antzerkiko lan bat aurrera eramateko, artista edo konpainia bati.

BERAZ. SORMENA BADA. BADA BIZIA. SORMENA ESZENARA!



AZARDAK 3. OSTIRALA

HELDUENTZAT

21:30ean, Soreasu Antzokian

MISS KARAOKE

METROKOADROKA KOLEKTIBOA
ETA PEZ LIMBO

FITXA ARTISTIKOA

- Aktoreak: Javier Fernandez, Unai Lopez de Armentia, Marina Suarez Ortiz de Zarate, Iñaki Ziarrusta
- Testua: Oier Guillan
- Dramaturgia: Metrokoadroka eta aktore taldea
- Zuzendaritza artistikoa: Oier Guillan, Javi Barandiaran eta Metrokoadroka
- Kartela eta estetika orokorra: Idoia Beratarbide
- Jantziak eta eszenografia: Idoia Beratarbide & Maria de Bernardo (Marodi sorkuntzak)
- Argiztapena: David Alcorta
- Bideoa eta teaserra: Zazpi t' erdi
- Ekoizpen koordinatzailea: Edu Hernando
- Ekoizpen laguntzailea: Joseba Roldan
- Ekoizpena: Vitoria-Gasteizko Principal antzokia; Donostiako Victoria Eugenia antzokia eta Bilboko Arriaga antzokiarekin elkarlanean, DSS2016-k bultzatutako «Dramaturgia berriak» ekimenaren baitan
- Laguntzaileak: Errenteriako Niessen Kulturgunea, Baratz Aretoa, Garaion Sorgingunea.



SINOPSISIA

Miss Karaoke-k abesti bat kantatzeko enkargua jaso du, eta urduritzen hasia da. Zer kantatuko du Ebento Handian, Antolatzaile Handiaren enkarguz, Jende Guztiaren aurrean? Are gehiago, zein hizkuntza aukeratuko du? Gutxiengo gutxitu, gehiengo gutxitu, gutxiengo gehiengotu edo gehiengo gehiengotuagotuentzat kantatuko du?

«Zerk definitzen zaitu?», «Identitatea aukeratu egiten da, edo identitateak aukeratu zaitu zu?». Era horretako galderari erantzuna bilatuko die Miss Karaokek, bere barne ahotsekin talkan. Umorea, absurdoa eta performance arima uztartzen dira eszena-lan honen taularatzean.

«Miss Karaoke» antzezlanaren oinarrian dagoen testua Oier Guillanek idatzi zuen DSS2016-ek bultzatutako «Dramaturgia berriak» deialdiaren baitan, eta Gasteizko Principal Antzokiak ekoiztu du, Arriaga eta Victoria Eugenia antzokiekin elkarlanean.

AZARDAK 4. LARUNBATA

HELDUENTZAT

21:30ean, Soreasu Antzokian

EZ DOK HIRU

TARTEAN TEATROA

FITXA ARTISTIKOA

- Egilea: Patxo Telleria
- Zuzendaria: Jokin Oregi
- Aktoreak: Mikel Martinez
Patxo Telleria
- Musiko-aktoreak: Adrián García de los Ojos
- Maria Arriaga Telleria eta Iván Allue
- Edizio musikala: Adrián García de los ojos
- Jantziak eta eszenografia: Azegiñe Urigoitia
- Eskenografiaren eraikuntza: Yon Gijon
- Argi diseinua: David Rodriguez
- Diseinu grafikoa: Paradox
- Teknikoak: David Rodriguez eta Oier Landa
- Argazkiak: Guillermo Casas eta Pío Ortiz de Pinedo
- Illeordeak: Anitz
- Ekoizlea: Tartean Teatroa
- Ekoizpen arduradunak: Ane Pikaza Ereño
Pío Ortiz de Pinedo



SINOPSISIA

“Ez dok Hiru”-ren proposamen teatral berria duzue hau. Publiko helduari zuzendutakoa, umorezkoa, euskaraz. Patxo Telleriak testuak sortzeko eta Mikel Martinezek, eta Telleriak berak, zuzenean antzetzeko duten estilo paregabearekin.

“Ez Dok Hiru” eszenatokietara itzuli da, Euskal Herriko imajinario musikalaren errepasso ironiko, absurdu eta dibertigarria eskaintzeko. Oraingo honetan, bikoteak beste hiru musikari-aktorekin partekatuko du taula, hitzari, bere ohiko tresna eszenikoari, zuzeneko musikaren indarra gehiturik.


AZARDAK 5. IGANDEA
HAUR + HELDUENTZAT
17:00etan, Soreasu Antzokian

MENDI TONTORREAN

TXALO

FITXA ARTISTIKOA

- Egileak : Begoña Bilbao, Aitor Fernandino, Iraitz Lizarraga, Alfonso Diez
- Itzulpena: Martin Agirre
- Aktoreak :
Aitor Fernandino
Alfonso Diez
Iraitz Lizarraga
- Musika: Audio Network
- Eszenografia : Asier Sancho Senosiain
- Eszenografi Egilea: Escenica Integral
- Jantzien Diseinua: Cristina Martinez
- Argiztapena: Julen Zaballa
- Teknikoa: Alfredo Medina Lirio
- Argazkiak:
- Kartela: Asier Sancho Senosiain
- Atrezzoak : Cristina Martinez
- Aholkularitza Juridikoa: Hator
- Asegurogintza: Fremap
- Ekoizpen Exekutiboa Martin Agirre
- Ekoizpen Arduraduna: Xabier Agirre
- Ekoizpena: Txalo
- Zuzendaria: Begoña Bilbao Lejarzegi



SINOPSISIA

Mendi-gidari bat (Edurne), espedizio-buru, eta bere bezeroa (Txema) dira pertsonaiak. Hitz gutxi emakumea bata, baina ekintzailea eta superstizioz bete; mendiko izpirituekin sinetsita dago. Txema, berriz, berritsu amorratua eta harroputza bezain berekoia... edozein prezioz gailurra harrapatzeko prest... ostera jaitzi eta ingurukoei kontatzeko.

Sokakidearekin eskalatzen ari dela, elurrezko panpin batekin egiten dute topo eta honek gailurra lortzeko arriskuaz ohartarazten ditu... Alferrik. Txema, harroputzak, kosta ala kosta, gailurre-ra igo nahi du Edurnek oso arriskutsua dela esan arren.

Gailurra harrapatuko dute, baina mendiko izpituak, inguruak zaborrez eta banderolaz zikinduta daudelako haserre, mendekua hartu eta laino beltza bidaliko die mendizaleei, noraezean utzi arte.

AZARDAK 9. OSTEGUNA
HELDUENTZAT
21:00etan, Udaletxeko Ganbaran


ERBESTE EDO SAHIETS BATEN ALDARRIKAPENAK

ANODINO TEATROA

FITXA ARTISTIKOA

- Aktoreak:
Getari Etxegarai
Aitor Fernandino
- Testua:
Mikel Fernandino
- Moldaketa Eta Zuzenketak
Maia Lizar
- Argazkiak:
Leire Lizarraga
- Distribuzioa Eta Kontratazioa:
Anodino Teatroa

erbeste
edo sahiets baten
aldarrikapenak



SINOPSISIA

Eva eta Adan. Jatorrizko gizakiak. Historiak ez du beti denon alde jokatzeko. Eta hau da, hain zuzen ere, Evaren susmoa. Beraz, Adan-ekin hitz egitea erabaki du eta mendez mende barruan gorde behar izan duen hori guztia askatuko du. Noski ez duela ezer Adan-en aurka; gizon trakets, zeharo matxista eta gustu txarrekoa izateaz gain, ez dio (ia) ezer txarrik desio.

Istoria honetan Eva eta Adanen istorioa kontatzen dugu baina Evaren ikuspegitik, izan ere, bidean hainbat gezur, gaizki-ulertze eta egi ustelak aurkituko ditugu eta orduan kontatu diguten Paradisua... Paradisua izaten jarraituko du?

Komedia gazi-goxo honetaz baliatzen gara gaur egun mantentzen diren emakume eta gizonen arteko ezberdintasunak salatuz.

Matxismoaren sustraia bilatzen historioaren hasierara joan gara eta hantxe aurkitu dugu Adanen paradisu eta Evaren infernu.

AZAROAK 1, ASTEAZKENA EHAZE V. ANTZERKI ESKOLEN EGUNA

Ehazek antolatuta eta Metrokoadroka Taldearen eskutik antzerki ikerkuntza: Tailerrak + kale Antzerkia Plaza Nagusian.

"PERTSONAIEN IRAULTZA [ANTZOKITIK AT!]"

Amaitzeko ogitartekoak, Sanagustin Kulturgunean

Laborategiaren azalpena: Pertsonaia ahaztuen desfilea egingo da. Parte hartzaileei aurretik (beste lanen batean...) sortutako pertsonaia bat ekartzea eskatuko zaie, edo bestela sortu nahi luketen pertsonaia eraikitzen lagunduko zaie. Ondoren, pertsonaiek aktoreen gorputzez jabetuko dira, aktoreak hil eta antzokietatik kanpo duten bizitzeko askatasuna aldarrikatuko dute.

AZAROAREN 1 ETIK 17 RA CORRADO MASACCI

"TXONTXONGILOEN AMETSAK"

ERAKUSKETA

Astelehenetik ostiralera 18:00etatik 20:00etara
Larunbat eta igandetan 12:00etatik 14:00etara

IKASTETXEKIN TAILERRAK

Astelehenetik ostiralera



ESKOLA EDO GAZTETXOEI ZUZENDURIKO ANTZERKIA

AZAROAK 13. ASTELEHENA

- LANDABERRI IKASTOLA "Ingurulermena"
- KUKUKA ANTZERKI IKASTOLA "Dantza Garaikidea"
- Ordua: 11:00etan
- Antzezleen maila: LH6
- Ikusleak: LH5 - LH6
- LANDABERRI IKASTOLA "Bost"
- KUKUKA ANTZERKI IKASTOLA "Txinpaz Z"
- Ordua: 15:30ean
- Antzezleen maila: DBH1-DBH2
- Ikusleak: DBH1 - DBH2

AZAROAK 14. ASTEARTEA

- ZUMADI HERRI IKASTETXEA AMEZKETA
- Ordua: 11:00etan
- Antzezlanak:
 - LH3 "Sorginak" abestia
 - LH4 "Ipuinen herriko erregea" ipuin musikatua
 - LH5 "Amalurra" 2 bertso antzeztuak
 - LH6 "Gaixo" antzerkia
- Antzezleen maila: LH3-4-5 eta 6
- Ikusleak: LH3-4-5 eta 6
- AZPEITIKO IKASTOLA IKASBERRI "Oroitzapenak"
- Antzezleen maila: DBH1-DBH3
- Ikusleak: DBH1etik - DBH4ra
- ORIO "Mendiaren Maitasuna"
- Antzezleen maila: BATXILERGOA1
- Ikusleak: DBH1etik - DBH4ra
- Ordua: 15:30ean

AZAROAREN 13-14-15 ETA 16

AZAROAK 15. ASTEAZKENA

- BERMEOKO SAGRADO CORAZON
- Ordua: 11:00etan
- Antzezlanak: "Itsua" "Zer Emon Bera Hartu"
- Antzezleen maila: LH6
- Ikusleak: LH3-LH4

- KARMELO ETXEGARAI IKASTOLA AZPEITIA
- "Ametsik gabeko bizia, izarrik gabeko gaua"
- Antzezleen maila: LH5-LH6
- Ikusleak: HH4-HH5
- Ordua: 15:30ean

AZAROAK 16. OSTEGUNA

ANDRAMENDI IKASTOLA BEASAIN

- Ordua: 11:00etan
- "Txibistoren erbia" Antzezleen maila: LH6
- "Egunon Erizaina" Antzezleen maila: LH6
- "Iruzurgilea" Antzezleen maila: LH5
- "Lan Bila" Antzezleen maila: LH5
- Ikusleak: LH3etik - DBH1ra arte

AZAROAK 16. OSTEGUNA

TANTTAKA TEATROA + TU – Euskal herriko, lesbiana, gay, transexual eta bisezualen elkarteak

- Ordua: 15:30ean
- "Muxua" PROFESIONALAK
- Ikusleak: LH6- DBH1-2-3

Lorenzok hamabost urte ditu, eta umezurztzia utzi eta abegi-familia batekin bizitzera joan da, Italiako hiri txiki batera. Han, Antoniorenkin maitemenduko da. Antoniok sentimenduak adierazteko zailtasunak ditu, eta ez daki nola erantzun Lorenzok erakutsitako afektuari. Elena, berari falta zaion adorea ikasleei emateko gogotsu dagoen irakaslea, horren testigu izango da. Hiru pertsonaia horiek dira maitasun, gorroto eta indarkeriari buruzko obra bikain baten protagonistak. Eta erdian, musu bat, eromena eragin dezakeen musu bakar eta simple bat...



AZARDAK 10. OSTIRALA
HELDUENTZAT
21:30ean, Soreasu Antzokian

**HAU DA NIRE
AMETSEN
KOLOREA**
COMPAGNIE ROUGE ELEA



FITXA ARTISTIKOA

- Antzezleak:
Corine Cella
Marine Dubois,
Javier Barandiaran
Ander Fernandez
- Koreografia zuzendaria:
Fanny Soriano
- Dramaturgia:
Oier Guillan
- Eszenografia:
Laurent Gauthier et Marine Dubois
- Musika/ soinu giroa / argiak:
Ander Fernandez
- Idazketan laguntzaile:
Paola Rizza

SINOPSISIA

HAU DA NIRE AMETSEN KOLOREA hildakoeri eskainitako dantza bat da. « Egin dantza, bestela geureak egin du », zioen Pinak. Abiapuntu hori hartuta, emakume batek bizirauteko egiten du dantza. Bere oinordekotza kulturala deitzen du bizitza ospatu eta dantzatzeko.

Berarentzat handiegia den jaka bat, sokak eta oihalak, arbasoetatik jasotako objetuez baliatuta irauteko dantza bat abiatzen du, instintuz egindakoa, gorputzak oroitzen dituen mogimenduez. Desagertutakoen memoria bizi dadin egingdako dantza euforikoa.

« *Proiektu honetan gure arbasoek guregan utzitako arrastoak xerkatu nahiko nituzke, eta ikusezinak diren trazek nola eragiten duten gure gorputzeran. Gordetzen al du gorputzak oinordekotza basati bat, natura eta materiarekiko sakoneko erlazio bat ?* »

Corine

AZARDAK 11. LARUNBATA
HELDUENTZAT
21:30ean, Soreasu Antzokian

ETXEKO SALTSAK
TXALO PRODUKZIOAK

FITXA ARTISTIKOA

- Egilea: Alain Ayckbourn
- Itzulpena: Martin Agirre
- Aktoreak:
Ane Gabarain / Miren Gojenola
Aitziber Garmendia
Mikel Laskurain
Aitor Fernandino
- Musika: Audio Network
- Eszenografia: Asier Sancho Senosiain
- Eszenografia Egilea: Escenica Integral
- Jantzien Diseinua: Cristina Martinez
- Argiztapena: Julen Zaballa
- Teknikoa: Alfredo Medina Lirio
- Atrezzoak: Cristina Martinez
- Aholkularitza Juridikoa: Hator
- Asegurugintza: Fremap
- Ekoizpen Exekutikoa: Martin Agirre
- Ekoizpen Arduraduna: Xabier Agirre
- Ekoizpena: Txalo
- Zuzendaria: Begoña Bilbao Lejarzegi



SINOPSISIA

ETXEKO SALTSAK (Relativity speaking jatorrizkoan) endreuzko komedia bat da, korapilatsua. Ikusleek pertsonaiek baino informazio gehiago dute eta aktoreak gaizki-ulertuen etengabeko kate dibertigarrian dantzan...

Egilea, Alan Ayckbourn antzerkigile eta zuzendari ingeles ezaguna da.

Greg eta Ginny etxe berean bizi dira. Maitaleak dira eta bizimodu zoriontsuan, ustez, sekreturen bat baitago tartean, isil-gordean. Ginnyk gurasoen landetxera, bixita egitera doala esango dio, baina gezurretan ari da. Izan ere, Philip, bere maitale sekretuarengana doa, harreman sekretua bertan behera utzi behar dutela esateko asmoz. Gregek, susmo txarra hartuta, neska laguna segiko du eta neskalaguna baino lehen allatuko da Philip eta Sheila bere emaztea, bizi diren landetxera. Ginnyren gurasoak direlakoan dago. Ginnyk Philipi aitaren plantak egitea eskatzen dio.

AZARDAK 12. IGANDEA
HAUR + HELDUENTZAT
17:00etan, Soreasu Antzokian

AZKEN ITZULIA

THÉÂTRE DES CHIMÉRES

FITXA ARTISTIKOA

- Taula zuzendaritza:
- Jean-Marie Broucaret eta Catherine Mouriec
- Antzerkilariak :
Txomin Héguy : Aldébaran
Patxi Uzcudun : Haurra
- Musikagilea: Jésus Aured
- Musikaria: Jésus Aured edo Jean-Christian Irigoyen
- Jantziak, atrezzoak, eszenografia :
Sophie Bancon, Annie Onchalo
- Teknika arduraduna : Pantxo Claverie
- Eszenografiaren egilea : Vincent Gadras

SINOPSISIA

San Andres de Uralai herrixkan, Aldébaran zaharra, moda zaharreko txirindulari jantzia soinean, bizikleta eskuan, bere hauraren, haur kausituaren, egun arte gorderik egonaren beha da. Herritar guziak hor dira zazpi urteko mutiko ttipiari ongi etorriaren egiteko prest. Hara non agertzen den, herrira ekartzen duen tunelaren ahotik, txirindulari jantzi berri-berria daramala. Doi bat herabe, doi bat zuhur, doi bat berri. Aldébaranek, lehen urratsa eginez, aurkezpenak egiten ditu.

Herri inguruan, udaberriak bere berde eta edertasuna eskaintzen ditu. Gure bi errotadun ibiltariak bidean abiatzen dira. Abiadura atxiki, bata bestearen aitzinean aldizkatu, haizetik babestu, aguardientez indarberritu: Aldébaranek haurari oinarritzko ezagutzak irakasten dizkio. Laster ikasten du.

Ibilaldiak inimizazio itxura hartzen du. "Airoski josta, pixka bat, denbora har ezak, aska hasi, hats hartzen ikas, bidean luza!" gomendatzen dio zaharrak. Loreak usain, onddoak irakur, xoriak entzun... Gorputzaren pizgarri den zentzuen besta, "bizia" ikas eta goza.



AZARDAK 12. IGANDEA
HAUR + HELDUENTZAT
17:00etan, Dinamoan-Soreasu

PLISTI-PLASTA

(0-3 urteko umeentzat) PANTZART TEATROA

FITXA ARTISTIKOA

- Aktore/ Aktorea: Ainhoa Pineda, Santiago Ortega
- Txotxongilo Maixua: Santiago Ortega
- Testuak: Juan Kruz Igerabide
- Musika: David Larrinaga
- Jantziak: Ana D.
- Argiztapena: Arantza Flores
- Argazkiak: Jose Antonio Gutiérrez "Guti"
- Dramaturgia: Elena Bezanilla
- Zuzendaritza: Benjamin Alonso
- Banaketa: Silvia Cano
- Ekoizpena: PANTZART, KunArten (Gasteiz) egonaldi iraunkorrean egina, Azkuna Zentroa (Bilbo)



SINOPSISIA

Orri zuri handi baten moduko espazioan, gizon aktore batek eta emakume antzezleri batek leiho bat aurkitzen dute formak eta panpinak bertan mugitzeko. Harago joanda, gauzak agertzen eta desagertzen dira, hala nola txotxongiloak, pailazoak eta koloretako ilargiak, denak Kveta Pacovskaren ilustrazioetan inspiratutakoak. Ondoren, bizitzen hasten diren marrazkiak sortzen dituzte. Ohartu gabe bezala, objektuek, panpinek eta musikak amets egitera gonbidatzen duen mundua eraikitzen dute. Gizon aktoreak eta emakume antzezleriak osatzen dute paisaia. Kontu handiz, txoriak jartzen dituzte hemen, errinozeronte bat han nonbait, burbuila batzuk harago, airezko lore hauskorrak balira bezala. Adin txikikoak eta euren laguntzaileak gonbidatzen ditu, kontu handiz, xaboi-burbuila handien eta txikien hodei batean murgiltzera, Plisti-Plasta aire-plasta geldiezinan.

AZARDAK 17. OSTIRALA

HELDUENTZAT

21:30ean, Soreasu Antzokian

HERIOTZA BIKOITZA [DOBLE MALTA]

JON ANDER ALONSO



FITXA ARTISTIKOA

- Kontzeptua: Jon Ander Alonso
- Sorkuntza: Creación colectiva
- Antzezleak: Miren Gaztañaga, Eneko Sagardoy
- Laguntzaileak: Bilbaoeszena, Meta! Kultur proiektuak, Azpeitiko Kultur Kooperatiba, Errenteriako Niessen Kulturgunea, Harrobia Eskena

SINOPSISIA

Espazio itxi batean bi aktore errealitatearen eta fikzioaren arteko mugan kokatzen dira. Behin betiko elkarrekin egongo direla elkarri zin egiten diote. Bietako bat bidaia ikaragarri batetik itzuliko da. Heriotzatik, hain zuzen ere.

Lehen pertsonan hitz egingo digute, baita bigarren pertsonan ere.

Bizipen horrek kolokan jarriko du beraien bizitzari eta heriotzarekiko ikuspuntua. Bi kontzeptuak nahastu egingo dira iragana-oraina-etorkizuna nahasten diren bezala.

Heriotza bizitzaren ondoren irekitzen den ate bat besterik ez da.

AZARDAK 18. LARUNBATA

HELDUENTZAT

21:30ean, Soreasu Antzokian

HYSTERIA

EROMEN PRODUKZIOAK



FITXA ARTISTIKOA

- Egilea: Amancay Gaztañaga
- Zuzendaria: Amancay Gaztañaga
- Aktoreak:
Ainhoa Casina: Anna O
Mireia Galarza: Berta Mortimer
Mikel Iburguren: Mortimer
Manolo Gaztañaga: Kontea
Olatz Aguado: X Anderea

SINOPSISIA

Amancay Gaztañagaren lehenengo testu originalaren aurrean aurkitzen gara. Komedia gazi-gozo honetan, “Histeria femeninoa” delako gaitz ezagunaren tratamendua behar duen emakume baten istorioa kontatzen digu. Zuzeneko musikak eta bost aktoreek sortutako magiaren bitartez, beste mundu batetara bidaiatuko dugu, non pertsonaia ezberdinek eta elegantziaz erabilitako baliabide teknikoek Anna O- ren gaitzaren sendabidearen bila eramango gaituzten. Sendatuko ote da Anna?

Antzerki konpainia baten entsaioan aurkitzen gara. Konpainiako kideek desadostasunak izan dituzte soldata ezberdinak jasotzen dituztela konturatu direnean. Bertako aktore baten gogoetak ametsetako bidaia batetara eramango gaitu. Bertan ezagutuko ditugu: Bertha Papenheim pertsonaia historikoan oinarritutako Anna O, bera sendatzen saiatuko diren Mortimer eta bere ezohiko makina; Bertha, Mortimerren emazte zintzoa; etxera iritsi berri den X anderea; bere dirua sendabide bat aurkitzeko inbertituko duen kontea...

AZARDAK 19. IGANDEA

HAUR + HELDUENTZAT

17:00etan, Soreasu Antzokian

LUNATICUS CIRCUS

TEATRO PARAISO



FITXA ARTISTIKOA

- Antzezleak: Mikel Ibañez, Aitor de Kintana, Oscar Álvarez
- Iluminación en gira: Kandela Iluminación
- Espazio eszenikoaren Diseinua: Ikerne Gimenez
- Espazio eszenikoaren Egilea: Eskenitek
- Atrezzo: Ana Fernández
- Jantziak: M^a Pilar López
- Argiztapenaren diseinua: Javier García, Asier Calahorro
- Musika Hautaketa: Ramón Molins, M^a Pilar López
- Proiekzioa: Begonya Ferrer, Molins Melons
- Magia: Asier Kidam
- Dramaturgia: Tomás Fdez. Alonso, Ramón Molins
- Zuzendariak : Ramón Molins, Tomás Fdez. Alonso

SINOPSISIA

Eskasia handiaren garaia da. Garai zailak dira Antón, Pirú eta Nicorentzat. Lanik, janaririk eta etxerik gabeko hiru arlote dira, euren gabeziatik alde egiteko aukeraren baten bila noraezean dabilzanak. Kasualitatearen, zoriaren edo, agian, patuaren ondorioz, zirkuko karabana zahar bat aurkitzen dute ezerezaren erdian.

Hiru galtzaile horiek, hasieran mesfidati, indarrak batuz gero dena errazagoa izan daitekeela ohartzen dira. Hortaz, karabana ahaztu hura zirku ibiltari bat sortzeko erabiliko dute, eta, tolesgabetasunezko beroaldi batean, zirkuko artistatan jolastuko dira; zirkuko saioak inprobisatzen hasiko dira, gogo biziz baina trebetasun handirik gabe.

AZARDAK 23. OSTEGUNA


HELDUENTZAT

21:30ean, Gaztetxean

HOZKAILUA

HUTS TEATROA

20:00etatik 21:15era
luntx bejetarianoa



FITXA ARTISTIKOA

- Eldazlea: Unai Iturriaga
- Zuzendaria: Manex Fuchs
- Aktoreak:
Ander Lipus
Patricia Urrutia
- Musika: Asier Ituarte
- Kitarra: Keu Agirretxea
- Argiztapena: Josep Duhau
- Teknika: Xabino Alkorta
- Eszenografia: Amaia Garate
- Panpina: Battitt Halsouet
- Jantziak: Marodi Sorkuntzak
- Irudia: Zugazart
- Argazkiak: Ainhoa Resano
- Administrazioa: Iasone Parada
- Banaketa: Irantzu Azpeitia
- Ekoizpena: ArteDrama

SINOPSISIA

Maite eta Karlos herririk herri dabilta hozkailu zahar batekin. Hozkailuaren barruan, garagardo lata eta hestekien artean, Londonetik dakarten Jimmy lagunaren hilotza daramate. Zin egin baitzioten Jimmyri bere jaioterrian lur emango ziotela. Nongoa zen galdetzea ahaztu zuten ordea. Zinezko adiskidantza bat azaleratuko duen ezinezko bilaketa baten istorioa da HOZKAILUA.

**ZIKLO BEREZIA
ANTZERKI
ALTERNATIBOA**

AZARDAK 24. OSTIRALA
HELDUENTZAT
21:30ean, Gaztetxean

BIHOTZ SALATARIA ATX TEATROA

20:00etatik 21:15era
luntx bejetarianoa

FITXA ARTISTIKOA

- Egilea: Edgar Alan Poe
- Itzulpena: Iñaki Ziarrusta
- Aktorea: Iñaki Ziarrusta
- Eszenografia eta Atrezzo: Atx Teatroa
- Argiztapena: Atx Teatroa
- Soinu atmosferikoa: Edu Zallio
- Ekoizpena: Atx Teatroa
- Banaketa: Naia Muñoz (Atx Teatroa)

ZIKLO BEREZIA **ANTZERKI** **ALTERNATIBOA**



SINOPSISIA

Zoroaren argudioak, psikopatearen perfekzionismoa, hiltzaile zuhurra eta zorrotza. Delitu ikaragarriena, zitalena...babes-bako agurea hiltzen dau, zatitu eta gorpuzkiak ezkutatu. Polizia ikertzeraz dator, ohiuren bat entzutean norbaitek abisua emon daualako.

Hiltzaileak, bere zereginaren perfekzionismoaz harro, etxe barrura gonbidatu, dana ordenean dagoala erakutsi eta eurekz batera jesartzen da lasai lasai solasean.

Garaipena dastatzen daualarik, bere buru barruan, agurrearen bihotz-taupak entzuten hasten da, hasieran astiro astiro eta motel motelean, baina bere buruko burrunba hori gero eta ozenago egiten da, gero eta zoliago entzuten dauz taupadak, jasanezin bihurtu arte. Errealak edo imajinarioak diran taupada misterioitsu honeek bere onetik atara eta bere delitua aitortzeraz bultzatuko dabe.

AZARDAK 26. IGANDEA HELDUENTZAT

18:00etan, Soreasu Antzokian

FITXA ARTISTIKOA

- Zuzendaritza: Edu Muruamendiaraz
- Eszena Zuzendaritza: Ainhoa Aierbe
- Testua: Karnele Jaio
- Argiztapen diseinua: Carlos Solano
- Zuzendari laguntzailea: Eli alberdi
- Koreografiak: Edu Muruamendiaraz eta Aukeran DK
- Garaikide Koreografiak: Ane Anza
- Dantzariak: Ane Anza, Garazi Egiguren, Ander Errasti, Ioritz Galarraga, Eneko Galdos, Ione Iriarte, Ekain Kazabon, Oier Laborde, Olatz Oribe, Uxue Urruzola, Itziar Uzkudun.
- Jantzien Diseinua: Oscar Armendáriz eta Aukeran DK
- Jantziak: Oscar Armendáriz
- Argazkiak: David Herranz
- Ekoizpen exekutiboa: Aukeran DK
- Ekoizpen laguntzailea: Jaione Jauregi
- Banaketa: Bapo Bapo producciones

SINOPSISIA

Egunkari orri bati sua emanez panderoaren larria berotu du Mauriziak. Kontu handiz, bizitzak erakutsi baitio beroa ez dela beti goxoa, gehiegi gerturatuz gero, garrek, pasioen antzera, erre egin zaitzaketela.

Albokaren doinua entzuterako, kokotsa altxatu eta bizitza eman dio panderoari, eta biziki mugitzen ari den haren eskuan, esku asko ikusi ditut; milaka emakumeren eskuak une batetik bestera hegan irteteko prest.

Halako batean barne lurrikarak eztanda egin eta Mauriziaren ahotsean entzun ditut beste hainbat

AMAIERAKO IKUSKIZUNA **MAURIZIA**

AUKERAN DANTZA KONPAINIA

ahots. Emakume askoren ahotsak dira, bizi-poza, harrotasuna, indarra, pasioa, alaitasuna erakusten dutenak. Baita beldurra, amorratioa, askatasun nahia, mina. Emakume haien guztien irrintziak aldi berean direlako algara eta aienea, aldi berean salaketa eta ospakizuna. Emakumeen ahotsek sorginduta, paparrera eraman dut eskua, saihetsetan kaiolatuta dudak txolarrea saltoka hasi baita, hegan irten nahian. Eta txolarrearen dardarak piztu du nire barrea, eta aldi berean leherrarazi du nire negarra, emakume horien guztien harrotasuna eta pasioa neureak sentitu ditudalako, euren minak eta tristurak bezala.

AZAROA

1. ASTEAZKENA **ANTZERKI TOPAKETEI HASIERA EMANEZ**

V. ANTZERKI ESKOLEN EGUNA. Ehazek antolatuta eta Metrokoadroka Taldearen eskutik antzerki ikerkuntza: **Taillerrak + kale antzerkia** Plaza Nagusian. Amaitzeko ogitartekoak Sanagustin Kulturgunean

3. OSTIRALA Helduentzat **"Miss Karaoke"**

METROKOADROKA KOLEKTIBOEA ETA PEZ LIMBO
21:30ean, Soreasu Antzokian

4. LARUNBATA Helduentzat **"Ez Dok Hiru"**

TARTEAN TEATROA 21:30ean, Soreasu Antzokian

5. IGANDEA Haur+Helduentzat **"Mendi Tontorrea"**

TXALO PRODUKZIOAK, 17:00etan, Soreasu Antzokian

9. OSTEGUNA Helduentzat **"Erbeste edo Sahiets Baten Aldarrikapenak"**

ANODINO TEATROA 21:00etan, Udaletxeko Ganbaran

10. OSTIRALA Helduentzat **"Hau Da Nire Ametsen**

Kolorea" COMPAGNIE ROUGE ELEA, 21:30ean, Soreasu Antzokian

11. LARUNBATA Helduentzat **"Etzeko Saltsak"**

TXALO PRODUKZIOAK, 21:30ean, Soreasu Antzokian

12. IGANDEA Haur+Helduentzat

"Azken Itzulia" THÉÂTRE DES CHIMERES, 17:00etan, Soreasu Antzokian

"Plisti -Plasta"(0-3 urteko umeentzat)

PANTZART TEATROA, 17:00etan, DINAMOAN-SOREASU

13, 14, 15 ETA 16 ESKOLA EDO GAZTETXOEI ZUZENDURIKO

ANTZERKIA 11:00etan eta 15:30ean, Soreasu Antzokian

1ETIK 17ARTE ZIRKOA ETA TXONTXONGILOAK

Corrado Masacci-ren txontxogilo tailerra eta erakusketa.

Foru Ibilbidea 7 behea. Goiz Arratsaldez

17. OSTIRALA Helduentzat **"Heriotza Bikoitza"**

(Doble Malta) JON ANDER ALONSO 21:30ean, Soreasu Antzokian

18. LARUNBATA Helduentzat **"Hysteria"**

EROMEN PRODUKZIOAK, 21:30ean, Soreasu Antzokian

19. IGANDEA Haur+Helduentzat **"Lunaticus Circus"**

TEATRO PARAIISO, 17:00etan, Soreasu Antzokian

ZIKLO BEREZIA ANTZERKI ALTERNATIBOA

23. OSTEGUNA **"Hozkailua"** HUTS TEATROA. 21:30ean, Gaztetzearan

24. OSTIRALA **"Bihotz Salataria"** ATX TEATROA 21:30ean,

Gaztetzearan. Arratsaldeko 20:00etatik 21:15etara jantoki bejatarianoa

26. IGANDEA XXXV.Euskal Antzerki Topaketen Amaierako

Ikuskizuna "Maurizia" AUKERAN DANTZA KONPAINIA

18:00etan, Soreasu Antzokian



EUSKAL
ANTZERKI
TOPAKETAK
AZPILITIKO



azperitokoudala
denon artean

Kulturaz
Azpilitiko Kultur Kooperatiba

Azperitokoudala
AKM

